

{ txostena } Maddi Txintxurreta Agirregabiria

HEZKUNTZA HOBETZEKO GAKOAK

Mundu berri bat, hezkuntza berri baten eskutik

Hik Hasi egitasmo pedagogikoak Euskal Herriera zuzendutako hezkuntza proposamen bat aurkeztu zuen urriaren 21ean, hainbat irakasle eta hezitzaileen urtebeteko hausnarketa sakonaren fruitu. “Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: Hezkuntza hobetzeko gakoak” tituludun dokumentuak hezkuntzaren foku aldaketarako hamar puntu jasotzen ditu; eta eskola autonomoez osatutako, finantzaketa eta segimendu publikoa duen eta partaidetzan sortutako hezkuntza eredua aurkezten da bertan.

Gizarteko pertsona oro haurren hezkuntzaren konplize izan daiteke, eta horrela nahiko luke Hik Hasi egitasmo pedagogikoak. Konplize nahi ditu haurrak ere Hik Hasik, euren etorkizunaren protagonistak direnez gero. Herrietako eragileak ere konplize gura ditu, hala nahi ditu administrazioa, eskoletako irakasleak, hezitzaileak eta atean haurrak aterako zain dauden gurasoak eta zaintzaileak ere.

Egun hezkuntzak dituen arriskuez zein garrantzitsutzat jo dituzten bestelako arlo ugari inguruan hausnartu dute urtebetez sare guztietako irakasle eta hezitzaileek, Mondragon Unibertsitateko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Baionako Unibertsitateko hainbat irakaslek, eta hezkuntza hobetzeko Hik Hasiren proposamena ehundu dute guztien artean. Proposamena Euskal Herri osora zuzentzen da.

Hiru oinarri finkatu dituzte «kalitatezko hezkuntza» bati

1

Hezkuntza jarduera balio hezitzaileetan oinarritu

2

0-3 urte bitarteko haurrena ez da hezkuntza hutseko aroa

3

Oinarrizko Hezkuntza osoa pertsonaren askotariko konpetentzien garapenera zuzendu



Alboko orrialdean, Hik Hasiren proposamen pedagogikoaren aurkezpen publikoa. Lerroon ondoan, neska-mutikoak eskolan.

Jon URBE- Aritz LOIOLA
| ARGAZKI PRESS

begira, urriaren 21eko prentsaurrekoan aurkeztutako dokumentuan jasotzen denez: finantzaketa eta segimenduari begira publikoa den hezkuntza, eskola bakoitzaren autonomia ziurtatzen duena eta partaidetzan sortutakoa.

Eskola publikoa zatiketa sozialarekin amaitzeko; autonomia estatuen esku hartzea ekiditeari eta hezkuntzaren deszentralizazioari begira; eta zaintzarekin, hezkuntza eragilean arteko lankidetzarekin, gertuko administrazioaren inplikazioarekin eta herriko beselako eragilean partaidetzarekin josia.

Hezkuntza birpentsatzea da gakoa. «Foku aldaketa», alegia. Kontxi Aizarna Hik Hasi taldeko irakasleak hausnarketa hau ekarri du: «Duela bi mendeko egitura administratiboa dugu; aurreko mendekoa dugu preskakuntza, eta mende honetako ikasleak hezten ditugu». Hezkuntza sare osoa irauli, aldatu, hobetu beharra sentitzen dute Hik Hasiren egitasmoan parte hartu duten irakasle eta hezitzaileek, mundu hobe bat erdiesteko. «Denontzat eta denona» den hezkuntza eraikitzeko.

MUNDU HOBE BAT

Hamar gaketan finkatu du egitasmo pedagogikoak kalitatezko hezkuntza, eta lehenengoak **«hezkuntza jarduerari balio hezitzaileetan oinarritzea»** eskatzen du.

Lehen gako horretan arreta berezia merezi dute aniztasunak eta euskarak. «Aniztasunari beste buelta bat eman behar zaio», dio Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko koordi-

natzaileak. Umeak «aniztasunean parekide» izatea desio du berak, «ekitate» zaintzea: «zailtasuna duenari, laguntza gehiago eman behar zaio», dio koordinatzaileak. Euskararekin berdintzatzen dela dio, euskaradun ez direnak «desabantaila» egoeran daudela, eta horren konponbidea horiei euskara gehiago ematea dela. Harremanetan euskara lehenesteko neurriak hartu behar direla uste du Auzmendik.

«Haurren kultura aitortu eta errespetatu behar dugu», dio Hik Hasiko koordinatzaileak. Izan ere, Auzmendi dio nerabeek eta haurrek kultura propioa daukatela, besteak ulertzen ez duguna. Desberdin ikusten dutela mundua, eta desberdin ikasten. Hik Hasiren

4

Irakasle eta hezitzaileen prestakuntza egokitu



hezkuntza proposamenaren hausnarketa garaian, hezitzaile eta irakasleek galdegin zioten beren buruei ea nolako mundua nahi duten. Egungo haurrei mundu «hobe» bat opa dietela esan zuten, eta berau lortzeko gakoak adostu zituzten, hezkuntzara eta hezkuntzatik begira. Eta, umeek kultura propioa dutenez gero, gizarte berrian pertsona irudimentsu eta kritikoak izateko, haurren erabakiak errespetatu behar direla aldarrikatzen dute.

Mundu horrek –naturarekiko iraunkorra dena, kultura aniztasuna errespetatzen duena, herritar kritiko eta baikorrak dituen–, inbertsio sakona eskatzen du, eta Hik Hasikoek argi dute inbertsioa hezkuntza dela. Horren bidean, ezinbeste-

koa da, Auzmendik dioenez, «herritar arduratsuak» izatea, eta OinHerri elkarteak zehaztutako herri hezitzailearen filosofia txertatu da hizpide den hezkuntza proposamenean.

Filosofia horrek herri osoaren partaidetza eskatzen du, hezkuntza eskoletatik at ere kokatzeko beharra. Kontxi Aizarnak azaldu du karga gehiegiz zamatzen dela eskola: «Karga handi bat jasaten ari da eskola. Asko egiten du eskolak, baina egin dezake gehiago baliabideak emanez gero». Horregatik, Aizarnak dio jendar-tea «protagonista» sentitu behar harko litza keela haurren heziketan, umeak «erdigunea» behar duela izan. Horretarako, azpimarratu du «jendarte bateratuago» bat behar dela.

5

Eskola bakoitzak bere hezkuntza proiektu propioa izatea

Horrela, zaintza familiaren testuinguruan nahiz erakunde- en eta haur eskolaren testuin- guruan gauzatzea proposatu du Hik Hasik, eta berebiziko ga- rrantzia hartzen du zaintza edo heziketa horrek haurren le- henengo hiru urteetan, Hik Ha- siko koordinatzailearen ustez: «Bizitzako lehenengo urteetan ikasten dira bizitza osorako oi- narri nagusiak».

Hezkuntza proposamenaren bigarren gakoak jasotzen due- nez, «**0-3 adin tarteko haurre- na ez da hezkuntza hutseko aroa; izatekotan ere, hezkun- tzaren aurretiko garaia edo familiaren eta eskolaren arteko zubi garaia besterik ez da**». Horrenbestez, adin horre- tako haurrek merezi duten besteko atentzioa jasotzeko, haur eskoletako langileen prestakuntzan sakontzeaz gain, umeak etxean zaintzeko eta hezteko familiei «errazta- sunak» ematea eskatu du Hik Hasik. Besteak beste, urtebete- ko lanuzte-baimen ordaindua, Europa iparraldeko hainbat herrialdetan gertatzen den be- zala. Haurra etxean zaintzea ezinezkoa bada; eta, ondorioz, haurtzaindegira edo bestelako zaintza moduetara jotzen ba- da, harrera toki horiek «ahalik eta zaintza edo heziketa one- na» bermatu beharko luketela nabarmendu dute Hik Hasitik.

ESKOLAK

Hezkuntza proposamena ondu dutenen artean, ardura pizten dute ikasgaiek. «Espezifikoe- giak» direla aipatu du Auzmen- dik, eta, ikasgaika beharrean, «proiektuka, arloka» irakastea nahiago luke berak. «Pertsonok ez dugu ikasgaika ikusten mundua, eta mundu errealean gaiak nahasten direnean gu geu nahasten gara». Horrega- tik, Hik Hasiren hezkuntza pro-

6

Postu bakoitzera- ko behar den prestakuntza espezifiko eskaintzea

Ikasleak euskaldun eleaniztun bilakatzea

Udalak kudeatu behar ditu ikastetxeak, herriko hezkuntza eragileekin batera

7

8



posamenaren hirugarren pun- tuak horrela dio: «**Oinarrizko Hezkuntza osoa pertsonaren askotariko konpetentzien ga- rapenera zuzentzea**».

Era berean, selektibitatea bezalako hautaprobeen aurka agertu dira adituak. Beraien ustez, Batxilergoa selektibita- tea gainditzera mugatzen da, eta horrek berak Bigarren Hezkuntza «modu desego- kian» baldintzatzen du. Azter- keta bidezko ebaluazioek «zertan hobetu behar den eza- gutzeko balio izatea» eskatzen dute, ikaslearen testuingurua aztertuz eta euren autonomia errespetatuz.

Bestalde, ikasgeletan emo- zioei lekua uztea desio du Hik Hasik, «gorputz heziketari, fi- losofiari eta adierazpenarekin lotutako arloei ordutegi zaba- lagoa eskainiz».

Irakasle eta hezitzaileen formakuntzan ere jartzen du arreta proposamenak.

Enpatia, hurrekiko gertutasuna edota gizartearekiko konpromisoa bezalako konpetentziak bultzatzea proposatzen du.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Irakasle eta hezitzaileei da- gokienez, beraien prestakun- tza egokitzea proposatzen da dokumentuaren laugarren ga- koan; eta Auzmendik azpima- rratu du garrantzitsua dela «enpatia», «hurrekiko gertu- tasuna» edota «gizartearekiko konpromisoa» bezalako kon- petentziak balioestea ikasketa mailarekin batera. Aizarnak irakasle izatearen konpromi- soa azpimarratu du: «Irakasle- ok hobetzeko prest egon behar dugu beti, etengabeko forma- zioan».

Hik Hasiren kalitatezko hez- kuntza lortzeko proposamena- ren zutabeetako bat eskolen autonomia da. «**Eskola bako- itzak bere hezkuntza proiektu propioa izatea**» aurkezten da dokumentuaren bosgarren ga- koan. Hori lortzeko, beharrez- kotzat jo dute ikasleen, langi-

PROPOSAMENA EGIN OSTEAN ERE, HAUSNARTZEN JARRAITU BEHARRA

leen, familien, eragileen eta Udalaren arteko elkarlana, hots, eskolak «komunitate» modura funtzionatzea.

Eskoletako zuzendaritzari buruz mintzo da dokumentu-ko seigarren puntua. Auzmendik egungo egoera salatu du: «Eskoletan, askotan pasatzen da inork ez duela zuzendari izan nahi, eta irakasle boka-zioa duen norbait administra-zioan sartu behar izaten da maiz, nahi ez badu ere». Horren soluzioa **postu bakoitze-rako behar den «prestakun-tza espezifikoa» eskaintzea** izan daiteke, adituen ustez.

Euskal Herriko haurrak «euskaldun eta eleaniztun» izatea du helburu Hik Hasiren proposamenak. Horrela zehaz-ten da zazpigarren puntuan: euskaldunak, «**euskara bizi-tzako hainbat esparrutan era-biltzeko gai izateaz harago, euskal kulturaz, historiaz, identitateaz eta berezitasu-nez jabetzeko**»; eta, eleaniz-tun, euskara lehenetsita ere, haurrek gai izan behar dutela-ko «gaztelania ala frantsesa eta atzerriko hizkuntza bat hainbat esparrutan egoki era-biltzeko».

KUDEAKETA ETA FINANTZAZIOA

«Uste dugu gertuko kudeake-tak beharrak hobeto detekta-tzeko eta hobeto erantzuteko balio duela», ebatzi dute hez-kuntzan adituek. Horren hari-ra, **ikastetxeak udalek kudea-tu behar dituztela iritzi dute; herriko ikastetxeetako elkar-teetako arduradunekin, hez-kuntzako profesionalekin eta hezkuntzan interesa duten eragile ororekin batera hez-kuntza plan bat gauzatuz. Plan horren funtzioak lirateke, zor-tzigarren puntuak zehazten duenaren arabera, «etorkin be-rriei begira harrera eta egoki-**

«Iazko ikasturtean hausnarketa bat egitea pentsatu genuen, heziketatik begira soil-soilik, eta hezkuntza proposamena osatu genuen. Belaunaldi berrientzat onena helburu hartuta, jauzi bat egitea erabaki genuen», azaldu du Kontxi Aizarnak, hezkuntza proposamenaren hausnarketa prozesuari begira. «Egungo egoeraren diagnostiko bat eginez hasi ginen, eta zerrenda bat osatu genuen aipatuz zertan asmatu dugun eta zer arrisku ditugun». Hik Hasi taldeko irakasleak kontatu du egungo hezkuntza ereduak lau arrisku dituela: «zatiketa linguistikoa, ez daukagulako bitarteko nahikorik haur guztiak oinarritzko maila batean euskalduntzeko; zatiketa soziala, eskola publikoen, kontzertatuen, pribatuen eta bestelakoen banaketa dagoelako; hezkuntza proiektuaren indargaltzea, legediak eskolen beharrei ez erantzuteak desilusioa ekar dezakeelako; eta administrazioaren aldetik pasibitatea».

«Arazo nagusia zatiketa da. Ez bada eskola bakarra duen herri txiki batean, gutxienez bi eskola dauden herrietan eztabaida ematen da. Eta eztabaida

dagoenean, modu txarrean izaten da», gehitu du Joxe Mari Auzmendik.

Taldeko akordioen mesedetan, norberak atzean utzi behar izaten ditu bere gurari batzuk. Hori bera gertatu da hezkuntza proposamena eztabaidatzeko orduan. «Bakoitzaren pentsamendu indibiduala hor dago, baina guk talde zentzu handia daukagu. Mila gauza eztabaidatu ditugu, eta hiztegi aldetik utzi ditugu gauza batzuk kanpoan, baina oso ondo sentitu gara, inor kanpoan utzi gabe, eta adostasuna oso erraz lortu dugu», argitu du Aizarnak.

Hezkuntza proposamen berriak egingo duen bidea ikustea tokatzen da orain. Momentuz, proposamenaren dokumentua ikastetxe eta eragile guztiei bidali zaiela jakinarazi du Hik Hasiko koordinatzaileak, baina hori eztabaida pizteko eta hausnarketa bultzatzeko egin dutela gogorarazi du, hezkuntzan interesa duen ororentzat «opari» bat dela azpimarratuz. «Guk azpiegitura txikia daukagu, eta ezin dugu gure kabuz hau aurrera eraman. Orain eztabaida behar da», adierazi du Auzmendik.

Danimarka eta Estonia beste-ak beste; herrialdeotan udalek zuzenean kudeatzen dituzten eskolak dituzte.

«Gaur egungo antolaketa burokratikoak ez du uzten es-kolen autonomia aurrera era-maten. Hik Hasik jendarte ba-teratu bat nahi du, ekitatea eta kohesio soziala ekarriko lituzkeena. Hemen berriro jaistera doaz hezkuntzako in-bertsioa, eta, hobetu nahi ba-dugu, inbertsio maila ere al-datu behar dugu», azaldu du Kontxi Aizarnak. Horretaz ari da, hain zuzen ere, Hik Hasi-ren proposamenaren hamar-garren puntua: inbertsioaz edo finantzaketaz. **«Jendarte-aren eta hezkuntzaren beha-rrei erantzungo dien finan-tzaketa»** eskatu du Hik Hasik, orain arte proposatutako guz-tia errealitate bihurtzeko adi-nako inbertsio erreala.

9

Antolaketa
administratiboa
denontzako
modukoa eta ba-
teratzailea izatea

10

Jendartearen eta
hezkuntzaren be-
harrei erantzungo
dien finantzaketa

tze plan bat egitea», «herriko hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuen arteko koordina-zioa bermatzea» eta «etorri berrientzat eskolatze plana prestatzea, Udalarekin, etorri berriekin eta eskolekin bate-ra», besteak beste.

Eskolen antolaketa admi-nistratiboaz jardun da kalita-tezko hezkuntza lortzeko be-deratzigarren gakoa, eta, horixe bera da, hain zuzen ere, hezkuntzako profesionalak gehien kezkatzen dituen alder-dietako bat. Egun hezkuntza munduan pairatzen den «fis-kalizazioaz» kexu dira Aizarna eta Auzmendi. Administrazio-aren «gehiegizko kontrola» de-la-eta, ezinezkoa gertatzen da eskola bakoitzak hezkuntza proiektu propioa gauzatzea. Europari begira jarri dira adi-tuak, erreferentzia egokituz jotzen baitituzte Finlandia,



Gorputz heziketa eta filosofia indartzea proposatzen da. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS